

EGILEAK / JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEEN TITULARRAK AHALORDEA JARDUTEKO GAITASUNA DUEN PERTSONA BATI EMATEKO DOKUMENTUA, HAREN ORDEZKARI GISA JARDUN DEZAN JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK EUSKADIKO ERKIDEGO AUTONOMOKO JABETZA INTELEKTUALAREN LURRALDE ERREGISTROAN ESPEDIENTE ADMINISTRATIBO BATEAN

(Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 5 artikulua)

Nik, ..... jaunak/andreak

NANa .....dudanak, .....

..... izeneko obraren egilea/titularra naizen aldetik,

ORDEZKARITZA AHALORDEA EMATEN DIOT

..... jaunari/andreari,

..... NANa duenari, nire izenean jardun dezan eta aurrez aipatutako obraren gaineko jabetza intelektualeko eskubideak inskribatzeko espedientean ordezkari nazan. Eta, ESKATZAILEA denez, izaera hori izan dezan jarduera eta jakinarazpen guztietan, eta aipatutako espedientearekin erlazionatutako eskaerak egin, errekursoak jarri eta sustatutako ekintzak bertan behera utzi ahal izan ditzan.

.....(e)n, .....(e)ko .....aren ..... (e)(a)n

EGILEA / ESKUBIDEEN TITULARRA

Izpta.: .....

SINADURA LEGITIMATZEKO EGINBIDEA

Jabetza Intelektualaren Erregistro Nagusiko funtzionarioa naizen .....

..... jaunak/andreak egin dut honako eginbide hau, arestian ageri den sinadura

..... jaunarena/andrearena dela eta nire aurrean sinatu duela ziurtatzeko.

.....(e)n, .....(e)ko .....aren..... (e)(a)n

Izpta.: .....

OHAR ARGIGARRIA:

- 1.- Eskabidea aurkezteko, ez dago inolako ahalordea eman beharrik; izan ere, 39/2015 Legeko 5.3 artikuluan xedatutakoari jarraiki, izapide egintza eta kudeaketen kasuan, ordezkari hori egon badagoela ulertzen da, eta eskabideak Erregistroan aurkeztea izapide egintza da.
- 2.- Eskabide ereduak eskatzaile gisa ageri den egileak edo/eta titularrak edo egile edo/eta titular guztiak sinatu dituztenean –azken kasu horretan, egile/titular bat jakinarazpenetarako eskatzaile gisa ageri dela–, Erregistroaren bulegoan beste pertsona batek aurkeztu ahal izango du eskabidea, izapide hori egiteko ahalorderik behar izan gabe.
- 3.- Eskubideak batera inskribatu nahi dituzten egileak bat baino gehiago direnean, ez da beharrezkoa egile bakoitzak beste egileetako bati ordezkatzeko ahalordea ematea, horrek gainerako guztien izenean eskabidea aurkez dezan. Kasu horretan, nahikoa da egile edo/eta titular guztiak eskabide eredu sinatzea eta egile edo titular horietako bat eskatzaile gisa agertzea. Hartara, ulertuko da egile guztiak pertsona hori hautatu dutela jakinarazpenetarako.